# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA ETA OSASUN SAILA**

**2193**

206/1992 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, kudeaketa hobetzeko egitarauetan sartuta dauden Osakidetzako Sorospen Unitateen barnean euren zerbitzuak betetzen dituzten langileentzat emankortasunarekiko osagarria arautzen duena.

Emankortasunarekiko osagarri aldakorra arautzen da Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuak eta Osasun eta Kontsumo Sailburuak emandako 1990eko apirilaren 17ko Aginduz, aipatutako osagarri hori ezartzeko funtsezko diren oinarriak ezarriz bertan gure Autonomi Elkarteko sare publikoko ospitaletako fakultatiboentzat, bera ezartzearekin lortu nahi diren helburuak finkatuta uzten direlarik.

Arau horren helburua funtsean, euren ohizko ihardueretan euren borondatez murgiltzen diren profesionalen atarramendu eta kalitate hobeak sustatzea da. Gaur egun, nola osasunerako eskabideak asko gehitu diren eta kontuan hartuta zein den hauei aurre egiteko giza baliabideen kopurua, gero eta premia handiagoa dago gehigarrizko aterramendu horretarako.

Hala ere, baliabide publikoek badute oraindik gehigarrizko gaitasunik eta hori erabili egin behar da osasunerako sorospenak beregan dituen arazoen arabera, hala nola, itxaroten daudenen zerrendei aterabidea emateko. Ildo honetatik, 1992ko martxoaren 6an Eusko Legebiltzarrak hartutako Akordioak beste era alternatibo batzuk ezartzea bultzatzen du, ospitaletako baliabideak ordu gehiagotan erabiltzeko eta dauden giza baliabideekin eta teknikoekin emaitzarik onenak lortzeko.

Bestalde, osasunaren eta gizartearen ikuspegitik eta kudeaketak razionala izan behar duenaren ikuspegitik begiratuta, diru-laguntza sustagarri mota hauek emateak dakarren gastu ekonomikoa ahal dela, lehenik eta behin, eskaintza/eskabidearen artean orekarik gutxien agertzen duten sorospen eremuetan zehaztu behar da. Gainera, argi eta garbi berezitu behar da profesionalen gehigarrizko ahaleginaren edukina eta kopurua, Instituzioarentzat duen tamaina eta garrantziaren heinean zuzen ordaindu ahal izateko.

Balioespen hauek, beste batzurekin batera, gaia beste era berri baten planteatu behar dela sendesten dute, emankortasunarekiko osagarrizko oraingo sistema hau martxan jartzeak metatu duen aztura kontuan izanik. Ildo honetatik, bide alternatiboa nahitaez mekanismo operatiboak antolatzean datza: hau da, autokudeaketa edo helburuak jarrita partaidetzazko kudeaketa egitea, barne hitzarmenez edo norberaren baliabidez egindakoa, osasun alorreko zerbitzuen prestakuntzetan egindako ihardueren eta kalitatearen maila ahal dela hobetzeko eta profesionalak partaidetzazko eta erantzunkizunezko kudeaketara hulbildun daitezen.

**DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO Y DE SANIDAD**

**2193**

DECRETO 206/1992, de 21 de julio, por el que se regula el complemento de productividad para el personal que presta sus servicios en Unidades Asistenciales del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza integradas en programas de mejora de gestión.

Mediante Orden de 17 de abril de 1990, del Consejero de Presidencia, Justicia, y Desarrollo Autonómico y del Consejero de Sanidad y Consumo, sobre regulación del complemento de productividad variable se establecen en nuestra Comunidad Autónoma, y para los facultativos de los hospitales de la red pública, las bases sobre las que se asienta la aplicación del citado complemento fijándose los objetivos que perseguía su implantación.

El propósito de la citada norma consiste fundamentalmente en incentivar un mayor rendimiento y calidad por parte de los profesionales que voluntariamente se impliquen en las actividades correspondientes. Actualmente, el fuerte crecimiento de la demanda sanitaria y el volumen de los recursos humanos con los que afrontarlo hace que aquel rendimiento adicional resulte cada vez más necesario.

No obstante, los recursos públicos aún disponen de una capacidad adicional que es necesario utilizar en función de problemáticas que acusa la asistencia sanitaria como, por ejemplo, las listas de espera. En este sentido, el Acuerdo del Parlamento Vasco adoptado el día 6 de marzo de 1992, apoya la implantación de vías alternativas para aumentar la utilización horaria de los recursos hospitalarios y optimizar los recursos técnicos y humanos disponibles.

Por otro lado, desde una perspectiva sanitaria y social y de racionalización de la gestión, conviene que el esfuerzo económico que implica la concesión de este tipo de incentivos se concentre, en primer lugar, en las áreas asistenciales con una relación oferta/demanda menos compensada. Conviene, además, diferenciar netamente el contenido y cuantía del esfuerzo adicional de los profesionales con la finalidad de poder recompensarlo en justa proporción a su magnitud e importancia para la Institución.

Estos y otros elementos de valoración vienen a corroborar la necesidad de un nuevo planteamiento del tema, partiendo de la experiencia acumulada en la implementación del actual sistema de productividad variable. En este sentido, la alternativa pasa necesariamente por arbitrar mecanismos operativos como son la autogestión o gestión participativa por objetivos, y la concertación interna o con recursos propios, que hagan posible mejorar los niveles de actividad y calidad en las prestaciones sanitarias de los diferentes servicios así como también el acercamiento de los profesionales al campo de la gestión participativa y responsable.

Mekanismo hauen bidez gaurkotu eta aldatu egiten da aurreko prozedura, alorreko kasu desberdinak behar bezala ikusteko malgutasun gehiago izateko eta zentru bakoitzean berarizko moduz lehentasunezko arazoak konpontzeko ahalegina puntu zehatzetara bideratzeko erak erraztuz.

Osasun sareko profesionalek eta teknikoek gaur egun betetzen dituzten zerbitzuei beste osagarri eta gehigarrizko batzuk emateko euren borondatez parte hartzeak zera esan nahi du: itxaroten daudenen zerrenden arazo garrantzitsuari aurre egin dakiokeela eta sorospen unitate guztiek, eta berauek osatzen dituzten langile guztiek, parte har dezaketela helburu eta plan estratejikoak finkatzen; hauen helburua gaisoak hobeto eta era eraginkorrez tratatzea da eta osasun zentruetan izango den kudeaketak partaidetza gehiago izango duen eredu bat garatzea eta profesional talde guztiak hortan inplikatzea.

Ildo honetan, arau honek beste ekarpen bat ere badu: sorospena hobetzeko neurri hauetan parte zuzena hartzen duten langileek, fakultatiboak ez direnak ere, diru-laguntza sustagarri mota hauek jaso ahal izango dituztela.

Azken batean, Dekretu honek, arazo zehatzak konpondu eta langileen partaidetza zuzena eta eraginkorra onartzeaz gain, aurreko aztura aprobetxatzeko aukera ematen du eta Osakidetzarentzat agiri estratejikoa da berau, kudeaketarako esparru berri bat taiutzen aurrera pausuak eman ditzan; horrela, gaur egun dituen giza baliabideak, teknikoak eta materialak erarik onenean aprobetxatuz, osasun zerbitzu publikoen iharduera kopuruz eta kalitatez hobetu dezan.

Ordezkaritzarik gehien duten Sindikatuei eta Alorreko Antolakunde Profesionalei xedapen honen berri eman zaie jadanik.

Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen urtarrilaren 28ko 1/1992 Legeko Azken Xedapenetatik Lehenengoak baimena ematen dio Jaurlaritzari, Osakidetzaren menpeko instituzio ireki edo itxietan euren zerbitzuak betetzen dituzten langileen ordainketa egitura antolatzera zuzendutako beharrezko diren xedapenak eman ditzan, Erakunde horrek betetzen dituen osasun zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko jar daitezen neurrien artean.

Guzti hori horrela izanik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 5. ataleko a) eta g) hizkietan eta 6. ataleko 1 a) eta ñ) idazatietan eta 3. idazatian, langilegoari eskuduntzak emateari buruzko otsailaren 20ko 36/1990 Dekretuan eta Osakidetzako Zerbitzu Nagusien eta Osasun Alorren egitura organikoa onartzen duen uztailaren 23ko 439/1991 Dekretuan ohartemandakoaren indarrez, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuak eta Osasun Sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko uztailaren 21eko bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

Estos mecanismos constituyen alternativas que actualizan y sustituyen al procedimiento preexistente, facilitando una mayor flexiblidad de cara a contemplar debidamente la casuística del sector y permitiendo concentrar el esfuerzo en la resolución de los problemas prioritarios de forma particularizada en cada centro.

El poder contar con la participación voluntaria de los distintos profesionales y técnicos de la red sanitaria para la prestación de unos servicios complementarios y acumulativos a los que actualmente desarrollan contribuye no sólo a afrontar el importante problema de las listas de espera sino que también permite la implicación de las distintas unidades asistenciales, y de todo el personal que las integra, en la fijación de los objetivos y planes estratégicos cuya finalidad redunda tanto en la calidad y eficacia con que sean tratados los pacientes como también en el desarrollo e implicación de los distintos estamentos profesionales en un modelo de gestión más participativo en los centros sanitarios.

En este sentido, otra clara aportación de esta norma la constituye el hecho de posibilitar que personal no facultativo que colabore activamente en estas medidas de mejora asistencial, tenga también acceso a este tipo de incentivos.

En definitiva, el presente Decreto, además de resolver problemáticas concretas y de reconocer la participación voluntaria y activa de los trabajadores, supone aprovechar la experiencia anterior y servir de documento estratégico para que el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza avance en el diseño de un nuevo marco de gestión que permita mejorar cuantitativa y cualitativamente el funcionamiento de los servicios sanitarios públicos a través de la optimización de los recursos técnicos, humanos y materiales de que actualmente se dispone.

De la elaboración de esta disposición han sido informadas las Centrales Sindicales legitimadas más representativas y las Organizaciones Profesionales del Sector.

La Disposición Final Primera de la Ley 1/1992, de 28 de enero, por lo que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, autoriza el Gobierno a dictar las disposiciones necesarias dirigidas a la ordenación de la estructura retributiva del personal que presta sus servicios en instituciones abiertas o cerradas dependientes de Servicio Vasco de Salud/Osakidetza dentro del conjunto de medidas tendentes a la mejora de la eficacia y calidad de los servicios sanitarios prestados por dicho Organismo.

Por todo ello, en virtud de lo previsto en la Ley, 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca en su artículo 5 a) y g) y artículo 6 apartado 1 a) y ñ) y apartado 3, el Decreto 36/1990, de 20 de febrero, de atribución de competencias en materia de personal, y el Decreto 439/1991, de 23 de julio, por el que se estructuran organicamente los Servicos Centrales y las Areas Sanitarias del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, y a propuesta de los Consejeros de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y de Sanidad, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión de 21 de julio de 1992,

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Osakidetzako Zentruetan euren zerbitzuak betetzen dituzten langilei ordaintzeko zuzendutako emankortasunarekiko osagarriak duen helburua hauxe da: zentru bakoitzeko zuzendaritzarekin aurrez hitzartutako sorospen helburuak lor ditzaten sorospen unitateetako kideei ordaintzea, kudeaketa hobetzeko egitarauen barnean sartuta badaude.

Xede horretarako, zentruetako zuzendaritzaren artean eta sorospen unitateen artean kudeaketa hobetzeko egitarauak finkatuko dira eta izenburu hauez ezagutuko dira:

1.– Barne Hitzarmenezko Egitaraua edo bertako baliabideez arituko dena: egitarau honen barnean, sorospen unitate bakoitzarekin (zerbitzua/lantaldea edo lagunak) akordioak izenpetuko dira zentruko ihardueretako ohizko ordutegiz kanpo sorospen prozesuak borondatez egiteko. Unitatearen edo zentruaren azpiegitura, baliabideak, antolaketa eta giza baliabideak eta teknikoak erabiliko dituzte, eta erantzunik gabe gelditutako sorospen eskabidea ezabatzeko izango dira prozesu horiek. Aurrez finkatuta utziko dira prozesu bakoitzerako baldintzak eta unitate bakoitza osatzen duten kideek helburu horiek betetzeagatik jasoko duten emankortasunagatiko osagarri zehatza.

2.– Autokudeaketako Egitaraua edo Helburuen araberako Partaidetzazko Kudeaketa: osasun kudeaketa hobea lortzeko egitarauak eta helburuak sartzen dira Egitarau honetan, horien emaitzak sistema bertara itzultzen bait dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honetan xedatutakoa Basurtoko Ospitaleko zerbitzuan ari diren fakultatiko eta fakultatiboak ez diren ososun alorreko langileei ezar dakieke, ezargarri izan dadin ordainketarako araubidearen arabera eta otsailaren 25eko 37/1992 Dekretuko 5. atalean xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta uzten da Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren eta Osasun eta Kontsumo Sailburuaren 1990eko apirilaren 17ko Agindua, hain zuzen, Osakidetzako Ospitaletako Fakultatiboentzat den Emankortasunarekiko Osagarri aldakorra arautzen duena, baita maila berdin edo apalagoko beste xedapen guztiak ere, nahiz eta orokorrak edo bereziak izan, Dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak baldin abdira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Nolanahi ere, Dekretu honetan ohartemandako kudeaketa hobetzeko egitarauen garapenerik sortutako emankortasunarekiko osagarria izendatzea Osakidetzak berak egingo du, aurrekontuetako diruizendapenetan aurrez onartutako mugen barruan eta indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz.

*Bigarrena.*– Osasun Sailburuak eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuak emandako Aginduaren bidez zehaztuko da zein eratara arautuko den Dekretu honetan zehaztutako emankortasunarekiko osagarri aldakorra ordaintzeko jardunbidea.

DISPONGO:

*Artículo único.*– El complemento de productividad destinado a remunerar al personal que presta sus servicios en los Centros del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, tiene como finalidad retribuir a los componentes de las unidades asistenciales, integradas en programas de mejora de gestión, que logren los objetivos asistenciales previamente concertados con la dirección de los respectivos centros.

A tal efecto, entre la dirección de los centros y las diferentes unidades asistenciales se establecerán los programas de mejora de gestión que se desarrollen bajo la denominación de:

1.– Programa de Concertación Interna o con recursos propios, en el que se establecerán los acuerdos con cada unidad asistencial (servicio/equipo o personas) para la realización, con carácter voluntario, de procesos asistenciales fuera del horario ordinario de actividad del centro contando con la infraestructura, medios, organización y recursos humanos y técnicos de la unidad o del centro, que irán encaminados a la absorción de la demanda asistencial no satisfecha, fijándose las condiciones preestablecidas para cada proceso y la propuesta concreta que en concepto de productividad por cumplimientos de dichos objetivos vayan a percibir los integrantes de cada unidad.

2.– Programa de Autogestión o Gestión Participativa por Objetivos, en el que se enmarcan los diferentes programas y objetivos correspondientes para conseguir una mejora en la gestión sanitaria y cuyos resultados reviertan en el propio sistema.

DISPOSICION ADICIONAL

Lo dispuesto en el presente Decreto, podrá ser aplicable al personal facultativo y sanitario no facultativo al servicio del Hospital de Basurto de conformidad con el régimen retributivo que le resulte de aplicación, y sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 5.º del Decreto 37/1992, de 25 de febrero.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 17 de abril de 1990, del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico y del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se regula el Complemento de Productividad Variable para los Facultativos de los Hospitales del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, así como cuantas otras disposiciones de igual o inferior rango, sean de carácter general o especial, en cuanto se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– En todo caso, la asignación del complemento de productividad derivado del desarrollo de los programas de mejora de gestión previstos en este Decreto se hará por el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza dentro de los límites recogidos en las dotaciones presupuestarias previamente acordadas y de conformidad con la normativa vigente.

*Segunda.*– Por Orden de los Consejeros de Sanidad y de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico se determinará el procedimiento regulador del devengo del complemento de productividad variable definido en el presente Decreto.

*Hirugarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko uztailak 21.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

Osasun Sailburua,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

*Tercera.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico,
y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

El Consejero de Sanidad,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### ZUZENTZA SAILA

**2194**

AGINDUA, 1992ko uztailaren 1ekoa, Zuzentza Sailburuarena, Zuzentza Sailean Goi-Kargudunaren Idazkaria lanpostutik kentzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 atalean ohartemandakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Miren Azegine Orue Mendibil And. Zerbitzu Zuzendariaren Goi-Kargudunaren Idazkari lanpostutik kentzea, egindako lana eskertuz.

*2. atala.*– Agindu honek 1992ko ekainaren 30etik aurrera hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko uztailak 1.

Zuzentza Sailburua,
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA

**2194**

ORDEN de 1 de julio de 1992, del Consejero de Justicia, por la que se dispone el cese como Secretarias de Alto Cargo en el Departamento de Justicia.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 50.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Cesar a Dña. Miren Azegine Orue Mendibil, agradeciéndole los servicios prestados como Secretaria de Alto Cargo del Director de Servicios.

*Artículo 2.*– La presente Orden surtirá efectos a partir del día 30 de junio de 1992.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de julio de 1992.

El Consejero de Justicia,
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.